BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4496

428/2013 DEKRETUA, urriaren 16koa, Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailari atxikitako Baltzu Publikoetako, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako eta Sektore Publikoko Fundazioetako zuzendaritza-kideen zerrenda onartzen duena.

Otsailaren 23ko 130/1999 Dekretuak Baltzu Publikoetako eta Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako zuzendaritza-kideen estatutu pertsonala arautzen du, eta 3. artikuluan ezartzen duenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak baltzu horietako zuzendaritza-kide publikoen zerrenda onartuko du dekretu baten bidez. Bestalde, zuzenbide pribatuko erakunde publiko edo baltzu publikoak zein saili atxikita dauden, sail horretako titularrek egingo dute kide horiei buruzko proposamena. Horrez gainera, artikulu berean ezartzen denez, Gobernu Kontseiluan aurkeztuko diren proposamen horien oinarri izango dira honako hauek izango dira: Baltzu Publiko edo Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publiko bakoitzeko zuzentza-organoak edo Administrazio Kontseiluak urtero gai honetaz hartuko dituen erabakiak; beraz, dekretu horretan ezarritakoari begira, erabaki horietan ondo zehaztu beharko da ea zein kargu edo postu dagoen sailkatuta zuzendaritzako kide legez.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko urriaren 16an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako Baltzu Publikoetako, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoetako eta Sektore Publikoko Fundazioetako zuzendaritza kideen zerrenda onartzea; dekretu honetako eranskinean jasotzen da zerrenda hori.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen da abenduaren 4ko 267/2012 Dekretua, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikitako baltzu publikoetako zuzendaritza-kideen zerrenda onartzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko urriaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

ERANSKINA, URRIAREN 16KO 2013/428 DEKRETUAREN

– Sociedad para la Transformación Competitiva – Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatea, SPRI, S.A.ren zuzendari orokorra.

– SPRILUR SAko zuzendari orokorra.

– Teknologia Parkeko SAren zuzendari orokorra.

– Energiaren Euskal Erakundea, EEEren zuzendari orokorra.

– Euskadiko Hidrokarburoen Sozietatea SAren zuzendari orokorra.

– Euskal Herriko Arrisku Kapitala Kudeatzeko Baltzuaren (SGECR) zuzendari nagusia.

– Basquetour, Turismoko Euskal Agentzia SAren zuzendari orokorra.

– Neiker, Nekazal Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea, A.Beko zuzendari orokorra.

– Hazi Fundazioaren zuzendari orokorra.

– Elika Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioaren zuzendari orokorra.